

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA. Maileguen araudia (2025eko uztaila)

Herritar guztiek har ditzakete maileguan, doan, Donostiako Udal Liburutegien Sarea osatzen duten liburutegietako materialak.

Euskadiko Liburutegiei buruzko Legeak zuzentzen du Donostiako Udal Liburutegien Sarea.

LIBURUTEGIKO TXARTELA

Maileguaz baliatzeko Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko erabiltzaile-txartela aurkeztu behar da.

Txartela eskuratzeko honako hauek aurkeztu behar dira:

14 urtetik gorakoek:

- Eskaera-orria beteta
- NAN edo pasaporte

14 urtetik beherakoek:

- Eskaera-orria beteta, aita, ama edo tutoreak izenpetuta

ZER HAR DAITEKE MAILEGUAN?

	Liburua	Umeentzako liburuak	CD	Bideojokoa	DVD	Umeentzako DVD	Mapa	Partitura	Aldizkaria ¹
Donostiako Udal Liburutegien Sarea	5	5	3	1	3	3	1	5	5
Mailegu egunak	21	21	21	21	21	21	21	21	21
Zenbatetan berrituak	2	2	2	0	2	2	2	2	2
Erreserbak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai

12245n 1

Erabiltzaileak bere gain hartuko du maileguan hartutako materialen erantzukizuna; lapurtuz gero edo urratu edo galduz gero, erabiltzaileak ordezkua erosi beharko du eta, salgai ez dagoen materiala bada, liburutegiak antzeko balioa duen dokumentua erostea eskatuko dio.

Materialak erabiltzailearen beraren erabilerarako izango dira, ez beste ezertarako; hortaz, debekatuta dago jendaurrean erakustea eta kopiak egitea. Erabiltzaileak jabetza intelektualari buruzko legediaren aurka ez joateko konpromisoa hartzen du.

Luzapenak epearen barruan eskatu behar dira eta materialak ez du erreserbarik eduki behar. Luzapenak egin daitezke internet-en bidez (<http://katalogoa.donostiakultura.eus>), telefonoz edo liburutegian bertan.

Maileguan dauden dokumentuak besterik ez dira erreserbatuko. Erreserbak egin daitezke Internet-en bidez (<http://katalogoa.donostiakultura.eus>), telefonoz edo liburutegian. Erabiltzaile batek 3 erreserba egiteko aukera izango du.

1. Kultur etxeetako liburutegietan bakarrik

ITZULTZEA

Materiala itzultzeko epea bete ezean, liburutegiko bazkide izatea galaraziko zaizu denboraldi batez. Zigorak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare osoan izango du eragina.

- Egun bateko atzerapena, egun bateko zigorra dokumentuko.
- 50 egun baino gehiagoko atzerapenagatik, txartela kenduko zaio dokumentua itzuli arte eta sei hilabetez mailegurik gabe geratuko da.
- Ez da erreserbarik egingo isuna dagoen bitartean.

Materiala posta ziurtatuaren bidez itzul daiteke. Materiala itzultzeko postak eskaintzen dituen beste moduetako bat erabili eta materialen paketea galduz gero, erabiltzaileak berriak erosi beharko ditu.

ERABILTZAILE BEREZIAK

Erakundeek, elkarteek, eta abar taldeko txartela eduki ahal izango dute; horretarako, erakunde edo elkarte direla egiaztatu -zuzendariak, presidenteak edo ordezkariak sinatutako agiriaren bidez- eta sinatzailearen NANA aurkeztu behar dute.

Gipuzkoan edo inguruko probintzietan (Araba, Bizkaia, Lapurdi, Nafarroa) bizi ez direnek aldi baterako txartela eskatu dezakete.

E-LIBURUTEGIA: MAILEGU DIGITALA

E-Liburutegia eLiburutegia Internet bidez liburu elektronikoak eta filmak eta ikus-entzunezkoak mailegatzeko zerbitzua da. Zerbitzu horretara sartzeko gogoratu helbide elektroniko hau: www.eliburutegia.euskadi.eus

Liburutegiko beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen diren datu berdinak sartzearekin nahikoa da.